



ARGAZKIAK: Gari GARIALDE | ARGAZKI PRESS

LAGINAK

«Bada jendea oso ondo erantzuten ari dena eta datu-base bat osatzen ari gara. Hala ere, zalantzarik ez da jende gehiago behar dela; gure helburua 3.000-4.000 laguneko basea osatzea da»

DEMENTZIA

«Markagailu goiztiarrak zehaztea lortzen bada mintzairaren bidez, aukera izango da diagnostiko goiztiarra egin eta eritasunaren garapena geldiaraziko duen terapia sortzeko»

ZEINU HIZKUNTZA

«Pertsona gorren irakurtzeko gaitasunarekin zer gertatzen den ikertzea gustatuko litzaidake, pertsona guztientzat baita garrantzitsua irakurtzen eta idazten ikastea»

duen hitz egiteko orduan. Hau da, ni asko saiatzen banaiz, eus-kara ama hizkuntza duen pertsona batek bezain ondo mintzatzeko gai izango naiz? Nik uste dut ezetz.

Gure ikerketa lerro bat arlo horretan ari gara egiten. Aztertzen ari gara nola erantzuten duen garunak ama hizkuntza euskara duten pertsonetan eta euskara bigarren hizkuntza dutenetan, soilik hizkuntza batean dagoen arau sintaktikoa, esaterako egatiboa, bortxatzen denean edota bietan dagoen araua zapuztean.

Elebitasuna, zalantzarik gabe, zuen ikerketa gai sendotako bat izango da?

Noski. Eredu honetan lan egiteak beste leku batean egin ezin daitezkeen galderak egitera garamatza. Hemen elebakarrak ditugu eta baita tipologikoki oso ezberdinak diren bi hizkuntza dakizkien jendea. Ingelesa eta frantsesa ere gertu ditugu. Bide horretan, elebitasuna gure ikerketa lerro garrantzitsuenetariko bat izango da etorkizunean ere.

Iaz «Nature» aldizkari ezaguneko artikulua kaleratu zenuten

alfabetatzeak garunean zuen eragina deskribatuz. Dislexia zuten haurren arazoa aztertze-ko baliagarria zela zenioten. Zein eremutan dira aplikagarriak zuen ikerketak?

Ez dugu pentsatu behar oinarriko ikerketak berehalako aplikazioa izan behar duenik. Nik beti onkogenearen adibidea aipatzen dut. Gaur egun minbizia duten pertsonen terapia jasotzen badute, orain urte asko norbaitek onkogenea aurkitu zuelako da.

Urte asko behar dira aurkikuntza bat ukigarria den zerbaitek bihurtzeko. Gure kasuan, artikuluan jasotzen zen moduan, alfabetatzeak burmuinean zer eragin duen aztertu genuen eta horrek dislexia duten pertsonen laguntzeko balioko du; izan ere, eremu horiek hobeto ulertzen baditugu eta lortzen badugu arazo hori duten neska-mutiletan eremu zehatz horiek aztertzea, aktibatzeak zein eragin duen ikustea... hortik abiatuta terapiak sortzeko gaitasun handiagoa izango dugu.

Ikerketa lerro garrantzitsua izango da zuentzat, beraz?

Mintzaira nahasmendua duten haurrak ikerketa objektu garrantzitsuak dira guretzat, besteak beste, apenas inor aritu delako alor hori aztertzen. Arazo hori duten haurrek asko sufritzen dute eskolan. Jendeak ez daki ondo nola diagnostikatu eta askotan bazterketaz egiten da. Eredu hori ondo aztertu behar da, nahasmendu mota desberdinak bereizteko. Nik uste dut garunak nola funtzionatzen duen ulertuta eta arazoaren inguruan gehiago jakitea lortzen badugu, egoera hobean egon gintezkeela horiei laguntzeko interbentzio zehatzago eta zuzenago bat egiteko.

Mintzatzeko gaitasuna galtzen dutenekin ere ari zarete.

Ikerketa lerro garrantzitsua da, halaber, dementzia duten edota hori garatzeko aukera duten pertsonekin egiten ari garena. Kontuan izan behar da pertsona horiek lehenengo galtzen duten ahalmen kognitiboa dela mintzaira. Guk lortzen badugu, markagailu goiztiarrak zehaztea mintzairaren bidez, aukera izango dugu diagnostiko goiztiarra egiteko eta, era berean, gaixotasuna

garatzea geldiaraziko duen terapia sortzeko.

Zeinu hizkuntzari ere eskaini diozue arreta.

Zeinu hizkuntza ahozko hizkuntza baten parekoa da, izan ere, egitura du, morfologia du, sintaxia... Guk frogatu dugu bai ulermenean bai ekoizpenean badirela fenomeno komunak pertsona batek zeinu bat errekonozitzen edo produzitzen duenean edo hitz bat errekonozitzen eta produzitzen duenean. Zalantzarik ez da, ordea, badirela desberdinak diren prozesuak, izan ere, bakoitza modalitate desberdinean sortzen da. Guretzat garrantzitsua da zeinu hizkuntzaren inguruan lan egitea. Pertsona gorren irakurtzeko gaitasunarekin zer gertatzen den ikertzea gustatuko litzaidake, pertsona guztientzat baita garrantzitsua irakurtzea eta idaztea.

Une oro pertsonekin egiten dituzuen ikerketak ari zara aipatzen. Laginak osatzeko boluntarioak lortzea erraza da?

Erraza da eta, aldi berean, ez da erraza. Bada jendea oso ondo erantzuten ari dena eta ari gara osatzen datu-base bat. Hala ere, zalantzarik ez da jende gehiago behar dela; gure helburua 3.000-4.000 laguneko basea osatzea da.

Eta lan taldea, zenbat lagunek osatzen duzue?

Ikerketa taldea 25 pertsonak osatzen dugu, doktoratu ikasleak eta ikertzaile laguntzaileak barne. Oraindik ere handitu egin behar dugu eta buruan dugu ikertzaile seniorrak erakartzea. Linguistak, psikologoak, fisioak, ingeniariak... ari gara lanean. Neurozientzia kognitiboa diziplina arteko arloa da. Lan eremu ezberdinetan lanean aritu den jendea bildu gara, beraz.

Proiektuak

Kognizioa eta

Hezkuntza. Helburua ezagutzaz jabetzeko mekanismoak aztertzeko ikerketa programa berritzaile bat abiatzea da, hezkuntza eta ikasketa sistemak hobetzeko asmoz. Izan ere, ikasketa eta hezkuntza estuki lotuak baitaude burmuinaren garapen mekanismoekin. Horrela, irakurketaren garapena eta arreta zein emozio prozesuen garapena gertatzen den bitartean burmuinak jasaten dituen aldaketak aztertzea da gure asmoa.

Hizkuntza, kognizioa eta generoa.

Europar dagoen hizkuntza eta kultura aberastasunak aukera ezin hobea eskaintzen du aztertzeko, genero ezberdintasunaren ezarpen eta mantentzean, hizkuntzak zein kulturak duten eragina. Diziplina arteko ikerketaren bidez, proiektuak formazio-programa egituratua eskainiko du ikertzaile gazteentzat hizkuntzaren, kognizioaren eta generoaren arlo emankor horretan.

SEMA proiektua.

Konzeptu-sistemak bide ematen du sistema semantikoaren antolakuntza argitzeko, batez ere, Alzheimer gaitza edo dementzia semantikoa duten gaixoen kasuan, baita teknika aurreratuen bidez, kognizio sistema osasuntsu duten kontrol talde egokietan ere. Ulermen zein ekoizpenean hizkuntzaren prozesamenduarien maila ezberdinak aztertzea du helburu proiektu honek.

Hitzen makro-basea.

Proiektu honen helburua gaztelaniazko hitzekin makro-base bat sortzea da. Web bidezko interfaze erraz bat edukiko du aldagai ortografiko, fonologiko eta semantikoei leku egiteko.

Zeinu hizkuntzaren

datu-basea. Ekimen honen helburua da Gaztelaniazko Zeinu Hizkuntzaren (LSE_Sign) zeinu-basea sortzea; ikus-interfaze bat izango duena kodigo gardenen bitartez ikusmen bidezko kontsultak egin ahal izateko. Datu-baseak Gaztelaniazko Zeinu Hizkuntzaren (LSE) 5.000 zeinu inguru izango ditu, publikoak izango da eta irizpide ezberdinen arabera bilaketak egiteko aukera emango du.